

## **HKEE-REN PRENTSA OHARRA, EUSKAL IRRATI TELEBISTA (EITB) ZUZENBIDE PRIBATUKO ERAKUNDE PUBLIKOAREN ETA MENDEKO DITUEN SOZietATEEN FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA, -2015.**

---

Joan den otsailaren 27an Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Osoko bilkurak onetsi zuen Euskal Irrati Telebista (Eitb) Zuzenbide Pribatuko Erakunde Publikoaren eta mendeko dituen sozietateen 2015eko ekitaldiaren ekonomia-finantzako jardueraren fiskalizazio txostena onartu zuen. Txostenak Osoko bilkurako kide batek egindako boto partikularra du.

Txostenak ondorioztatu du Erakundeak eta mendeko sozietateek **zuzentasunez bete dutela** 2014ko ekitaldian ekonomia-finantzaren jarduera arautzen duen **lege arautegia**.

Urteko kontuei dagokienez, HKEEk aldeko iritzia plazaratu du, nahiz adierazi duen Urtek Kontuek ez dutela 5,3 milioi euroren zuzkidura jaso bi epai judizialeatik eratorritako gastuari aurre egiteko, izan ere, epaiok adierazi dute ez zaizkiola zuzenbideari egokitzen ETB, SAU eta EI, SAUko langileei aplikatutako % 5eko soldata murrizketak, EAEren Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen abenduaren 23ko 2/2009 Legearen 23.9 artikulua araber.